

SANTURTZIKO UDALAREN HILERRIKO BARNE- ARAUBIDEA

ATARIKOAK

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

I. Kapitulu

Xedapen orokorrak

1. artikulua

Santurtziko Udal Hilerria, San Jorge deritzona, herri zerbitzuko ondasuna den aldetik, Udalbatzaren agintaritzapean baino ez dago eta berari dagozkio beren-beregi haren administrazioa, zuzendaritza eta zaintza honako Araudi honetan adierazten diren terminoetan, Toki Oinarrizko Araubideari buruzko apirilaren 2ko 1985/7 Legearen 25.2.k artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz, Epai Agintaritzari eta, hala denean, osasun-arloko agintariei dagozkien ahalmenei kalterik egin gabe.

2. artikulua

Udalari dagozkio ondorengo eskudantzia hauek:

- a) Hilerria bera eta bertako hilobi-eraikuntzak, denontzako zerbitzuak eta instalazioak antolatu, artatu eta atontzea.
- b) Ehortz-guneei buruzko emakida administratiboak baimendu eta aldatzea eta horietatik eratorritako ehorzketa-eskubideak aitortzea.
- c) Lurrak antzemateagatik, obra-lizentziengatik, ehorzketa-eskubideen emakidengatik eta zerbitzuak egiteagatik lege ezartzen diren eskubide eta tasak jasotzea.
- d) Hilerriko barne-araubidea, gorpuk eramatea barne.
- e) Ezarrita dauden osasun- eta higiene-neurriak eta aurrerantzean ezartzen direnak betearaztea.
- f) Hilerriko langileak izendatzea, zuzentzea eta horien lan-jarduna etetea.

- b) Norbanakoei baimena ematea hilerrian edonolako obrak edo instalazioak egin eta ikuskatzeko.
- c) Hilerriaren jabe titularra eta udal-mugarteko jarduerak araupetzen dituen erakunde publikoa izanik, berari dagokion beste edozein funtzio egitea.

3. artikulua

Ondorengoak dira norbanakoen eskubide eta betebeharrak:

- a) Hilerrian gorpua duintasunez ehorzteko eskubidea, inolako bereizkeriarik gabe.
 - b) Araudi honek dioen bezala, nork bere erlijio eta ideologiaren arabera bidezko jotzen dituen hilobi-eskubideak eta errituak hautatzea.
 - c) Nork bere lursaila, horma-hilobia, panteoia eta abar adierazten diren artapen, apaindura eta estetika baldintzetan mantentzea, bai eta eraikuntza bera ere, barrutik zein kanpotik.
 - d) Zerbitzuak jasotzeagatik Zerga Ordenantzan ezartzen diren eskubideak eta tasak ordaintzea.
- a) Udalak, bestelako edozein administrazio edo erakunde eskudunek hilotzen osasun-poliziaren arloan ematen dituen xedapenak zaintzea eta betetzea.

4. artikulua

Erljio-sinesteek ehorzketak bidezkoen jotzen dituzten eran antolatu ahal izango dituzte, kasuan kasuari ezar dakizkiokeen araei jarraituz, baina betiere hildakoei zor zaien begiruneak ezartzen dituen arauen barruan. Edonola ere, bete beharko da honako Araudi honetan, urriaren 19ko 2004/202 dekretuan xedatutakoa, zeinen bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko Araudia onartzen den, horrez gain, ezar daitezkeen gainontzeko indarreko xedapenak ere bete beharko dira.

5. artikulua

Tokiari zor zaion begirunea dela-eta ondoko arauak bete beharko dira:

- a) Ahalik eta isilen egon beharko da bertan, eta erabat debekatuta egongo da moralaren eta mota guztietako sinesteen aurkako esaldiak edo hitzak esatea; segurtasuneko zerbitzuetakoek araua hausten dutenak bertatik kanporatu ahal izango dituzte.

- b) Debekatuta dago markatutako kale edo ibilbideetatik kanpo ibiltzea, bai eta lorategiak zapaltzea ere.
- c) Hilerrira ezin izango da ez janaririk ez edaririk eraman.

II. Kapituluia

Definizioak

6. artikulua

Araudi honen helburuetarako, ondorengoak dira definizioak:

Gorpua: Giza gorputza, benetako heriotza gertatu eta lehenengo bost urteetan. Heriotzaren eguna Erregistro Zibilean inskribatuta ageri den egun bera izango da. Horrez gain, gorputzat hartzen da giza gorputz horiek, zeinetan heriotzatik bost urte igarota ere, materia organikoa suntsitzen duten fenomenoak oraindik burutu gabe dauden.

Gorpukiak: Heriotza gertatu eta bost urtera materia organikoa deseginda dagoenean, geratzen diren giza-gorputzaren hondarrak dira, betiere materia organikoa suntsitzeko fenomenoak amaitu badira.

Usteltzea: Materia organikoa desagertzea eragiten duen prozesua, gorpuari mikroorganismoen eta beste izaki batzuen erasoen bidez desagerrarazia bera.

Erraustea: Gorpua, gorpukiak edo gorpuzkiak beroaren bidez errauts bihurtzea

Aldi baterako artapena: Gai kimikoak aplikatuz, usteltzea atzeratzen duen metodoa.

Enbalsamatzea: Usteltzeko fenomenoak agertzea eragozten duten metodoak.

Hozketa: Gorpua 6 gradutik behera mantentzea, usteltzeko prozesuak atzeratze aldera.

Gorpuzkiak: Ebakuntza kirurgiko, anputazio edo abortuak direla-eta, bizirik dauden gizakiei ebaki edo banatzen zaizkien gorputz-atalak eta gorpuaren eta gorpukien kontzeptuetan sartzen ez direnak.

Hilerria: Gorpuak, gorpukiak, gorpuzkiak edo horietatik eratorritako errautsak osasun publikoarentzat arriskurik ekarri gabe ehorzteko erabiltzen den lursail mugatua.

Izozketa: Gorpua hotzaren bidez kontserbatzeko metodoa, gehienez -18° tenperatura duela.

Errautsa: Gorpu, gorpuki edo gorpuzkia erraustu ostean geratzen den hondakina.

beilatokia: Heriotza gertatu den tokitik hilobiratu edo erraustuko den tokiraino gorpua gordetzeko toki gisa gaitutako gorputegi edo gorpu-tokia, zein behar bezala egokituta dagoen gorpuak jarri eta beilatzeko.

Ehortz-gunea: Gorpuak, gorpukiak edo errautsak ehorzteko behar bezala egokitutako gela edo tokia.

Horma-hilobia: Prisma baten forma duen ehorts-gunea, gainjarritako ilaratan egindako eraikuntza batean integratuta eta bertan gorpu bakar bat sartzeko tokia duena.

Ganga/kapera: Gorpu, gorpuki edo errautsak sartzeko zenbait espaziodun ehorzketa-unitatea.

Ehorzleku, hilobi edo hobia: Gorpu bat edo gehiago, gorpukiak eta errautsak sartzeko sestra azpiko ehorts-gunea.

Partzela: Behar bezala mugatutako lursaila, non ehorts-gune edo hilobi-monumentu bat eraiki daitekeen, zeinek eraikitze-arauetan adierazitako apaingarri eta ezaugarriak hilobi edo ganga (panteoia) egitura izango duen. Errautsak bota eta zabaltzeko lursailak ere mugatu ahal izango dira.

Errauts-biltegia/hezurtegia: Gorpukiak edo errautsak sartzeko neurri egokidun ehorts-gunea.

Panteoia: Santurtziko Udalak baimendutako lan-egitasmoari jarraituz eraikitako ehorts-guneak, alde zehatzetik zehaztutako neurrikoak, non zenbait gorpu, gorpuki eta errauts gordeko diren.

III. Kapitulu

Gorpuen sailkapena

7. artikulua

Araudi honek ondorioak izan ditzan, gorpuak bi taldetan sailkatuko dira, heriotzaren arazoien arabera:

I. taldea:

Talde honetan bai lan-arloan hileta-langileentzat, bai herritarrentzat, orokorrean heriotzaren kausek osasun-arriskua ekar dezaketen gorpuk daude, betiere herri-administrazioak zehaztutako arau eta irizpideei jarraituz. Heriotzakausa hauen artean Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko 2004/202 Araudiaren I. eranskinean dauden gaixotasunak daude, bai eta beste une batean Osasun Agintaritzak talde honetan sar litzakeenak ere.

II. taldea:

Talde honetan substantzia, isotopo edo gai erradioaktiboek kutsatutako pertsonen gorpuk daude, bai eta irradiazioa jaso ondoren, kutsadura erradioaktiboa dela-eta osasun arriskua ekar dezaketen gorpuk ere.

III. taldea:

Talde honetan I. edo II. taldeetan sartuta ez dauden beste kausa batzuen ondorioz hil diren pertsonen gorpuk daude.

II. TITULUA

KUDEAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ARTAPENA

I. Kapitulu

Titulartasuna eta instalazioak

8. artikulua

San Jorgeko udal hilerriaren titulartasuna Santurtziko Udalak du oso-oso, eta berari dagokio hura zuzentzea, administratzea, araupetzea eta artatzea, legeria orokorrean xedatutakoaren edo, Estatuak edo Euskal Herriko Autonomia Erkidegoak, bakoitzak bere eskumenak erabiliz, ematen dituztenei kalterik egin gabe.

9. artikulua

1. Udal hilerriak ondorengo instalazio hauek edukiko ditu gutxienez, udalaren Aurrekontu Orokorrean urtero bilduko diren aurrekontu-zuzkiduren arabera:

- a) Udalerriaren beharrak betetzeko behar diren ehortz-gune huts edo libre nahikoa.
- b) Gorpukiak jartzeko hezurtegi komuna.
- c) Abortu, ebakuntza kirurgiko eta mutilazioetako gorpuzkiak ehortzeko tokia.
- d) Konfesioanizdun gorputegi bat
- e) Ehortz-guneak garbitzean geratzen diren zur, arropa, hiletatresnak eta gorpuzkiak ez diren objektuak desagerrarazteko sistema egokia.
- f) Biltegi bat, hilerriaren artapenerako eta mantendu-lanak egiteko behar diren materialak eta tresnak gordetzeko.
- g) Hilerriko langileak garbitzeko eta desinfektatzeko instalazioak.
- h) Komun publikoak.
- i) Hutsik dagoen gune bat, sor litezkeen balizko beharrei erantzuteko.

2.- Hilerriak, udalerriak etorkizunean izan litzakeen eskaera eta beharrak asetze aldera, beste instalazio batzuk ezarri ahal izango ditu, besteak beste:

- a) Errautsak botatzeko gunea.
- b) Errautsetarako biltegi komuna
- c) Errautsak gordetzeko biltegia.

II. Kapituluak

Kudeaketa

10. artikulua

Hilerriaren administrazioa Obra eta Zerbitzu Arloko zinegotzi eskuordetuaren eta horretarako izendatutako funtzionarioaren zuzendaritzapean egingo da.

11. artikulua

1.- Hilerriaren kudeaketak hurrengo funtzio hauek ditu:

- a) Hilerriaren administrazioa, hurrengo funtzioak dituela:
 - Abian jarri, bideratu eta erabaki hurrengo hauei buruzko espedienteak: jabari publikoen emakidak aldatu, izapidetu eta iraungitzea; jabari publikoen emakidei buruzko behin-behineko eta behin betiko tituluak izapidetu eta ematea; bikoizketak gorde eta ematea eta gorpukiak ehortzi, desehortzi, lekuz aldatu, gorde eta txikitzeko baimena ematea.
 - Partikularrek egindako lanetarako lizentziak eman, horien fiskalizazio teknikoa egin eta baimena ematea.
- b) Bertako ordena eta txukuntasuna zaintzea.
- c) Gorpuak edota gorpukiak ehorztea eta desehorztea eta osasun-hileta gaiari buruzko indarreko legeetan agindutako beste edozein jarduketa egitea.
- d) Hilerria bera eta bertako elementuak (eraikinak, lorategiak eta instalazioak) artatu, mantendu eta garbitzeko eta instalazioak lanean edukitzeko behar diren obrak, zerbitzuak eta lanak egitea.
- e) Udal hilerria kudeatzeko helburuei egokitutako edozein, eskumendun organoak aldeztatik horrela erabaki badu.

2.- Santurtziko Udalak aurreko atalean adierazitakoak garatuko ditu Estatuak eta Erkidegoaren xedapen ezargarriek emandako eskumenak erabiliz eta honako Araudi honetan ezarritakoari jarraituz.

3.- 1. Puntuaren c), c) eta e) ataletan adierazitako zerbitzuak lizitazio-prozeduraren bidez kontratatu ahal izango dira.

12. artikulua

Aurreko artikuluan adierazitako zerbitzuak egiteagatik ordainaraziko diren kopuruak unean uneko zerga ordenantzetan ezarriko dira.

13. Artikulua

Santurtziko Udalak udal hilerriaren barrutian ordena zainduko du eta halako lekuari zor zaion begirunearekin joka dadila eskatuko du, hurrengo arau hauek betearaziz:

1.- Bisitariak une oro hilerriari zor zaion begirunearekin jokatuko dute; bestela, Udalak bere eskumeneko legezko neurriak hartu ahal izango ditu eta arau hau betetzen ez dutenak kanpora ditzaten agindu.

2.- Udalak hilerriaren barrutiaren zainketa orokorra egingo du zuzenean edo zeharka, baina ez ditu bere gain hartuko ehorts-guneetan gerta daitezkeen lapurreta edo apurketak.

3.- Hilerriaren barrutian ezin daiteke ez salmenta ibiltaririk, ez propagandarik egin.

4.- Ehorts-guneen argazki, erreportaje, marrazki edota pinturak egiteko, eta mota honetako barrutiei berezkoa zaienaz beste jarduera batzuetako ekintzak egiteko, aurretik baimen berezia eskatu beharko zaio Udalari, betiere gainerako erabiltzaileei zor zaien begirunea zainduz, erabiltzaileek intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea babeste aldera.

5.- Hileta-obrak eta inskripzioak toki honen xedeari dagokion begirunearekin egingo dira eta gorde beharko dituzte araudi honetan arautzen diren ehorts-gune-mota bakoitzaren diseinu, eraikitze eta estetikari buruzko arauak.

6.- Debekatuta dago, Udalak baimen berezia eman ezean, jendea gorputegian, hezurtegi orokorrean edo hilerriko langileentzako instalazioetan sartzea.

7.- Ezin izango da baimenik gabe objektu jakin batzuk hilerrian sartu edo bertatik atera, eta hartara, eragotziko da barrutiaren izaera kaltetzen duten objektuak jartzea, eta dagoeneko baldin badaude kendu egingo dira.

8.- Ezin izango da txakurrik edo beste abererik hilerrian sartu, txakur itsu-laguntzaileak salbu.

9.- Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordetuak baimen berezia eman ezean, guztiz debekatuta dago ibilgailu guztiak hilerrian sartzea hurrengo hauek salbu: hileta-ibilgailuak, Udalaren zerbitzu-ibilgailuak, hilerrian erabiliko diren eraikuntza-materialak garraiatzen dituztenak eta mugikortasun urritua duten herritarrentzako ibilgailuak.

Nolanahi ere, garraio bide horien jabeak hilerriko bide eta instalazioetan sortzen dituzten kalteen erantzuleak izango dira, eta beraz, konpondu egin beharko dituzte, edo bestela kalteak ordaindu, hala badagokio.

10.- Norbanakoek Udalak ezarritako ordutegian baino ezin izango dute jardun ehorts-guneak garbitzen, artatzen edo apaintzen. Lana amaitutakoan,

inguru guztia garbituko dute eta zaborrak, hondakinak eta lan-materiala ahalik eta lasterren kenduko dituzte.

11.- Lore eta baliogabeko beste objektu batzuen hondakinak Hilerriko langileek adierazitako lekuetan utzi beharko dira.

1. atala Administrazioa

14. artikulua

Hilerriko administrazioaz Udalaren hileta-zerbitzuak egiten dituen atala arduratuko da.

15. artikulua

Hurrengo hauek Santurtziko udalaren eskumenekoak dira:

- a) Ehortz-guneen gaineko emakidak ematea, eskualdatzeak eta iraungitzeak onartzea.
- b) Desehorzketak onartzea
- c) Lekualdatze ziurtagiriak egitea
- d) Hilerriko erregistro-liburuan egin beharreko oharra idaztea.
- e) Jabari publikoko emakidaren jabego-ziurtagiriak egitea eta eskumendun organoak onartutako lekualdatzeak idatziz jasotzea.
- f) Hilerrian hileta-zerbitzuak egiteagatiko eskubide eta tasak kobratzea, dagokion zerga ordenantzaren arabera.
- g) Udalari egokitzat jotzen diren proposamenak egitea hilerriko zerbitzuak ondo kudea daitezen.
- h) Hilerraren zerbitzuekin lotura duten eta Udalaren beste organoek beren-beregi esleituta ez dituzten gainerako eginkizun guztiak.

16. artikulua

Udalaren hileta-zerbitzuen ardura duen administrazio-atalaren buruaren eskumenekoak dira ondokoak:

- a) Hilerriko agiriez arduratzea, arduradunak horretarako behar diren jarraibideak emango dituela.
- b) Eskatzen diren txosten guztiak egitea eta zerbitzuko fitxategiei buruzko ziurtagiriak eratzea.

- c) Gainerako udal organoekin hilerriaren funtzionamenduari, artapenari, zaintzari eta garbiketari dagozkion lan guztiak koordinatzea.
- d) Behar diren presazko neurriak hartzea hilerriko zerbitzuek behar bezala funtziona ditzaten, baldin eta gainerako organo eskudunei kontsultatzerik ez badago. Ahalik eta azkarren eman beharko die neurrien berri.

2. atala Artapena

17. artikulua

Santurtziko Udalak, Obra eta Zerbitzu Arloaren bitartez, bere kargura izango ditu hilerriaren interes orokorrekoak diren bide, estolda, argi, zuhaitz, lorategi, eraikuntza eta gainerakoak mantendu, artatu eta garbitzeko zerbitzua eman eta lanak egitea. Hala ere, zerbitzu hauek guztiak edo parte bat kontratatu ahal izango dira.

18. artikulua

1.- Emakidadunak ehorts-guneen, objektuen eta instalazioen garbiketa, artapena eta mantendu-lanak bere gain hartuko ditu.

2.- Emakidadunek hilobiak garbitu, artatu eta mantentzeko betebeharra bete ez eta ondorioz haiek hondatuta daudela antzematen bada, Udalaren hileta-zerbitzuek betebeharra betetzeko eskatuko diote eskubidearen titularrari 10 eguneko epean aipatutako lanak burutu ditzan. Eskatutakoa bete ezean, Udalak modu subsidiarioan egin ahal izango ditu, horren kostua emakidadunak hartuko duela bere gain.

3.- Araudi honetan xedatutakoari jarraituz, ez zaie betebeharrak hori eskatuko dagoeneko iraungita dauden eskubideen titularrei.

19. artikulua

1.- Hilerri barruan ezin daitezke piezak edo marmoreak zerra, ez eta desguazeak eta halakoak egin ere.

2.- Inguruabar bereziak direla medio, halakorik egin behar izanez gero, Obra eta Zerbitzu Arloko Zinegotzi Eskuordetuari baimena eskatuko zaio, eta hark adieraziko du lanok non egingo diren.

III. kapitulua

Langileak

20. artikulua

1.- Kapitulu honetan ezarritako aginduak bai Udaleko langileek eta bai kontratupekoek bete beharrekoak izango dira.

2.- Hilerriko langileak koordinatzaile-arduraduna, langile espezialistak eta bestelako langileak dira.

21. artikulua

Hilerriko langileek egindako lanek lan-protokoloetan ezarritako betebeharrak guztiak bete beharko dituzte. Egindako lan guztiak eguneroko lan-agirietan azaldu beharko dira.

22. artikulua

Kapitulu honetan aipatzen diren langileek ezin izango dute lanean udal hilerriarekin zerikusia duten norbanakoekin jardun, Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzko indarreko araudia ezarri, hala badagokio.

23. artikulua

Ondorengoak dira koordinatzaile-arduradunaren funtzioak, bere funtzio-orrian ezarritakoei kalterik egin gabe:

1.- Hilerriko ateak adierazitako orduetan zabaldu eta ixtea.

2.- Hilerriko atal guztiak garbi, behar bezala artaturik eta ordenatuta egon daitezen zaintzea, eta hilerri barruko aldeko apaingarriak ere zaintzea.

3.- Hilerrian dauden objektu guztiak zaintzea, bai eta hilobietako apaingarriak eta haien zerbitzurako behar diren elementu, tresna eta erremintak ere.

4.- Hilerriaren barruan osasun-higieneko elementuetan, apaingarrietan eta gainerakoetan antzematen diren irregulartasunaren berri ematea.

5.- Ehorzteko ematen zaizkion gorpuak eta gorpukiak jaso eta garraiatzea.

6.- Ehorzketa edo desehorzketarako edo, hala denean, ehorts-gunea itxi eta estaltzeko eta errautsak gordetzeko behar direnak egiteko agintzea.

7.- Lurperatzeak medikuaren heriotza-agiria edo lurperatzeko lizentzia aurkeztu gabe ez daitezela egin zaintzea.

8.- Hilerriko ateetako giltza, eta bertako gela eta zerbitzuetakoak gordetzea; giltza horiek ezin izango zaizkio inori laga Udalaren Hileta Zerbitzuaren baimenik gabe.

9.- Hilerrian errespetuz joka dadin zaintzea, egintza lotsagarriak eta tokiari zor zaion begirunearen aurkako jarduerak eta horien eragileak bertan egotea ekidinez.

10.- Obra eta Zerbitzu Arloko zinegotziak hilerriko zerbitzuen ordenaz eta antolamenduaz ematen dituen jarraibideak betetzea.

11.- Hezurtegiak eta gorputegiak ondo aireztatua eta arreta handiz zainduta daudela zaintzea, osasunerako kaltegarria izan daitekeen arriskua desagerrarazteko beharrezkoak diren neurri guztiak ezarriz.

12.- Ehortz-gune guztiak behar bezala artatuta daudela ziurtatuko du, eta hondatuta edo bertan behera utzita dauden eraikinen berri emango die bere buruei. Halaber, hilobi-emakidadunei ere ehortz-guneetan gertatzen diren hondatze eta akatsen berri emango die.

13.- Ez du utzi beharko inork hilerriko herri-bide edo eremuak oztopa ditzan eraikuntza edo apaingarriekin; arlo honetan antzematen dituen arau hausteen berri emango die udal zerbitzuei.

14.- Ez du utziko hilerrian obrarik egiterik, baldin eta aurretik udal lizentzia eskuratu ez bada. Hori dela eta, egiten diren obra guztiak gainikusiko ditu eta baimena erakuts diezaioten eskatuko du beti.

Obretan baimenik gabe ari direnei, obrak eteteko aginduko die eta Herri Zerbitzuen Ataleko buruari emango dio horren berri. Halaxe jokatuko du, halaber, egiten diren obrak ez baldin badatoz baimenak bere gain hartzen duenarekin bat.

15.- Hilerriko sailen kokapenaren planoak edukiko du, eta honek ehortz-guneak eta panteoiak zenbakituta izango ditu.

16.- Eraikuntza, altzari eta tresnen alderdi materiala zainduko du eta, haietan akatsik antzemanaz gero, Obra eta Zerbitzu arloari haien berri eman eta neurri egokiak proposatuko ditu.

17.- Ehortz-gune eta instalazioen kanpoko aldeko guneak edo eremuak (kaleak, bideak eta abar) garbi, ordenatuta eta txukun daudela zaindu beharko du, eta behar diren neurriak hartu beharko ditu marmolginetik, igeltseroetik eta bestelako langileek, eta ehortz-guneen jabeek hilerriko kale, bide eta bestelako guneetan zaborrik, hondakinik, lore-ustelik, kandelarik edo bestelakorik utz ez

dezaten, eta udal zerbitzuei emango die ildo horretan antzematen diren arauhauste guztien berri.

18.- Ibilgailuei ez die hilerrian sartzeko utziko, honako Araudi honen 13.9 artikuluan adierazitakoei izan ezik.

19.- Igeltseroek, marmolginak eta gainerako langileek obretarako behar dituzten materialak obretatik gertu gordetzen direla zainduko du, oinezguneetan ibiltzeko oztoporik sortu ez dezaten.

20.- Ez dio inori hondakinik botatzen utziko. Obretako hondakinak egunean bertan eraman beharko dira kanpora, eta obrek zikindutako aldea garbi eta txukun utzi beharko da. Horretarako, obran bertan lan egiten duten guztiei hondakinak beraien baliabideen bidez eta beraien ardurapean kenaraziko dizkie eta baimendutako hondakindegira eramana arazi.

Honekin lotuta gertatzen diren urratze guztien berri eman beharko da Hirigintza eta Ingurumen Arloan, agindu baten bidez bertatik hondakin guztiak kentzeko eska dezan. Aipatutako agindu hori betetzen ez bada, betearazte subsidiarioa egingo da, jar daitezkeen zehapenei kalte egin gabe.

21.- Egunero antolatzea bai ehorzketak, desehorzketak, lekualdaketak eta beste zerbitzu batzuk eta bai hilerriaren eta bere instalazioen garbiketa- eta mantendu-programak, beharrezkoak diren agiriak behin aurkeztuta.

22.- Ez die ez txakurrei, ez beste animaliei hilerrian sartzeko utziko, itsuen txakur laguntzaileei izan ezik.

23.- Ez du gorpukiak edo objektuak hilerrian sartu edo bertatik ateratzen utziko, baldin eta baimenik ez badago.

24.- Ez die hilerrian sartzeko utziko keinu, jokaera edo bestelako ekintza lotsagarriekin barruko lasaitasuna hausten dutenei edo hilerriari zor zaion begirunea aintzat hartzen ez dutenei.

24. artikulua

Hilobi-behargin espezialisten zereginak ondokoak dira, bakoitzak bere zeregin-orrian ezarrita dituenak gorabehera:

- a) Horma-hilobietan, lurlean, panteoietan, errauts-biltegi eta bestelako ehorts-guneetan ehorzketak egitea.
- b) Horma-hilobi, lur, panteoi, errauts-biltegi eta bestelako ehorts-guneetan desehorzketak egin, garbitu eta zaborra erretiratzea.
- c) Garbiketarako Udal Zerbitzuak heltzen ez diren tokiak garbitzea.
- d) Lurrean hobiak zabaltzea.

- e) Lorezaintza-lanak oro har.
- f) Horma-hilobietan eta panteoietan trenkadak jartzea eta zarpeatzea
- g) Dunperrarekin lan egitea.
- h) Lursailetatik zaborra kentzea.
- i) Desehorzketetako kutxak ataltzea.
- j) Mantendu-konponketa errazak egitea baldin eta horiek egiteko prestatuta badago.
- k) Lan-tresnak eta materialak garbitzea eta mantendu-lanak egitea.
- l) Hilerrriaren mantentze-lan orokorra egitea.
- m) Ezarritako lan-protokoloak bete eta eguneko lan-agiriak entregatzea.
- n) Sortzen diren beharrek eskatzen dituzten lanak egitea.
- o) Aurreko zereginak burutzeko egin behar dituen lan guztiak.

25. artikulua

Ehorzte, desehorzte eta gainerako zerbitzuetarako behintzat, ezinbestekoa izango da Hilerriko langile guztiek pareko janzkera izatea.

IV. kapitulua

Ordutegia

26. artikulua

1.- Hilerrria astelehenetik igandera egongo da zabalik 9:00etatik 19:00etara ordutegi jarraian; bulegoa, berriz, 9:00etatik 14:00etara. Ordutegiak Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordetuak aldatu ahal izango ditu, interes publikoko arrazoiak tarteko.

2.- Guztiz debekatuta dago ezarritako ordutegietatik kanpo hilerrrian sartzea, ez bada premiazko egoera dela eta betiere Hilerriko langile arduraduna edo honek eskuordetutako langilea bertan dagoela. Arau-hausleei errieta egin ez ezik, hilerritik irteteko ere aginduko zaie, eta horrez gain, beraien aurka jo ahal izango da administrazio- edo epai-bidetik, kasuan kasu.

3.- Kasu berezietan, hau da, hotsandiko gertaera edo egintza bat dagoenean, Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordetuak beste ordutegi bat ezarri ahal izango du, baina bakar-bakarrik gertaera edo egintza burutu behar den egunerako.

27. artikulua

1.- Hildako baten senideek hilotza zaintzen eta beilatzen geratu nahi badute gorputegian dagoen bitartean, Udaletxeko Erregistro Nagusian eskatu beharko dute baimena, eta erabakia Obra eta Zerbitzuetako Zinegotzi Eskuordetuaren dekretuaren bidez hartuko da, zeinek zehaztuko duen bertan zenbat denbora emateko baimena duten. Ez onartutako eskaeretan arrazoitu beharko da zergatik ez den baimena eman.

Edonola ere, Hilerriaren langile arduradunek gorputegian geratzeko orduei eta ordenari buruz emandako aginduak bete beharko dituzte.

2.- Dena delakoagatik, Udalak uste badu ezin dela gunea eskatutako denbora-tartean erabiltzeko baimenik eman, eskatzailearekin harremanetan jarriko da egoeraren berri eman eta beste bide bat topatze aldera.

3.- Egun eta aldi berbererako eskaera bat baino gehiago aurkezten badira, lehenetsuna Sarrera Erregistroan aurkeztutako instantziaren data, ordua eta zenbakiaren hurrenkeraren arabera ezarriko da.

28. artikulua

1.- Gorpuk jaso eta ehorzteko ordutegia hurrengo hau izango da:

Ehorzketa lanegun eta goizez baldin bada, gorpua 12:30ak baino lehen sartuko da hilerrian, arratsaldez bada, berriz, 18:30ak baino lehen. Gorpua 12:30ak edo 18:30ak baino beranduago sartzen bada, hilotza gorputegian geratuko da arratsalde edo biharamunera arte, hau da, ehortzi arte; ez bada, gorpuk ehorzteko araudi ezarritako epeak direla-eta, ezin dela biharamunera arte itxaron.

Igande, jaiegun eta jaiegunetan 26. artikuluan adierazitako orduetatik kanpo hileta-enpresek gorpua gorputegian jartzeko behar dituzten langile guztiak eraman behar dituzte derrigor ehorzketa egiten den arte.

2. Gorpukiak edo errautsak bildu eta azken hauek bota eta zabaltzeko, interesatuek eguna eta ordua hilerriko zerbitzuarekin zehaztu beharko dituzte. Edonola ere, berau zabalik dagoen ordutegiaren barruan izango da.

29. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, ordutegi horretatik kanpo gorpuk ehortzi ahal izango dira hilkutxak baldintza egokiak izan ez, eta

baimendu egiten denean Osasun Administrazioak beren-beregi egindako erabakiaren bidez. Horrez gain, hondamendi larri edo epidemiologia irregulartasun larriek edo gorpuaren egoerak horretara behartzen dutenean ere ordutegi horretatik kanpo jarduteko aukera egongo da heriotza-agirian adierazitakoa betez, baldin eta gorpuak lurperatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Sanitate-alderdiei buruzko araudian edo indarreko araudi ezargarrian xedatutako legezko epea errespetatzen bada.

V. Kapitula

Erregistroa

30. artikulua

Udalak Hilerrian burututako jarduera eta zerbitzuen erregistroa izango du, berau egoki administratzeko planifikazio eta kontrolerako tresna gisa. Horretarako bitarteko informatikoak erabili ahal izango dira izapide administratiboa arintzeko.

31. artikulua

Erregistroan hurrengo hauek zehaztuko dira:

- a) Hildakoaren izen-abizenak eta bestelako datu pertsonalak
- b) Jatorria edo gordelekua
- c) Hiltokia eta ohiko helbidea
- d) Heriotzaren arrazoia
- e) Heriotza egiaztatu zuen epaitegi edo medikuaren zenbakia
- f) Egintza egingo den horma-hilobi, lurreko hobi, panteoi edo errauts-biltegiaren identifikazioa, adieraziz zehatz-mehatz non kokatuko diren eta zein hurrenkera-zenbaki dagokien
- g) Emakida eskatu duen pertsonaren identifikazioa
- h) Zerbitzua egingo duen hileta-enpresaren izena

III. TITULUA

EHORZTEGI EDO HILETA ERABILERA DUTEN GUNEEZ

32. artikulua

1.- Udal Hilerrian hurrengo ehorztegi hauek egongo dira:

- a) Horma-hilobiak eta hezurtegiak (gorpukietarako horma-hilobiak): fatxada bakar bateko edo biko blokeetan banatuta egongo dira eta blokearen izenaren eta hurrenkera-zenbakiaren bidez identifikatuko dira.
- b) Panteoiak: Dagozkien zenbakien bidez egongo dira ordenatuta, emandako tituluaren arabera.
- c) Lurreko hobiak: partzelatan banatuko dira, eta hauetako bakoitza ilaretan; hobiak zenbakiz ordenatuko dira, hurrenkeran.

2.- Hurrengo ehorztegi edo hileta erabilerarako guneak ere egon ahal izango dira:

- a) Errauts biltegiak: horma-hilobi eta hezurtegien banaketa bera izango dute, fatxada bakar bateko edo biko blokeetan banatuta eta blokearen izenaren eta hurrenkera-zenbakiaren bidez identifikatuta.
- b) Errautsak bota eta zabaltzeko gunea: errautsak bota eta zabaltzeko gune mugatua.
- c) Errautsen biltegi komuna.

I. Kapitulu

Horma-hilobiez eta hezurtegiez

33. artikulua

Udalak estatistiken arabera udalerriaren beharrianak asetzeko behar beste horma-hilobi eta hezurtegi egingo ditu eta eskatzaileei eskabideen hurrenkerari jarraituz, haien gaineko jabari publikoko emakidak emango dizkie gorpuak edo gorpukiak ehorts ditzaten,.

34. artikulua

1.- Eraikitzen diren horma-hilobi eta hezurtegiak hurrenkeran zenbakituko dira, eta osasun-arauak eta ezarri beharreko araudian eskatutako neurriak gordeko dituzte.

2.- Horma-hilobi edo hezurtegi bakoitzean ezin izango da ehorzketa bat baino gehiago egin emandako epean, honako Araudi honen 36. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe.

35. artikulua

1.- Horma-hilobi eta hezurtegien gaineko jabari publikoko emakida gorpua edo gorpukiak, hurrenez hurren, berehala gorde daitezzen emango da 20 urterako eta Zerga Ordenantzak kasu bakoitzerako adierazten duen tasa ordaindu egin beharko da. Aipatutako Ordenantzak aldaketak baditu, bete egin beharko dira.

2.- Behar berezia dagoenean gorputegiko denboraldia murriztu ahal izango da, baldin eta hilotzen sanitate-alderdiei buruzko araudian edo ezarri beharreko indarreko araudian xedatutakoa bete egiten bada. Kasu hauetan ezinbestekoa izango da osasunaren arloko agintarien baimena izatea eta jakinarazi beharko zaie legezko oinordekoei.

3.- Horma-hilobi zein hezurtegi-tako egonaldia indarrean baldin badago, oinordekoek erabakiko dute hildakoaren gorpua lekuz aldatuko duten, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Udalaren baimena dituztela. Senideek ez dute inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango horma-hilobia edo hezurtegia erabiliko ez duten denboraldiaren truke, eta ez dute Udal Administrazioako bestelako ordainik ere jasoko.

36. artikulua

1.- Horma-hilobi eta hezurtegi-tako egonaldiak emakida egiten den egunetik bertatik hasiko dira zenbatzen.

2.- Gorpu batekin batera, horma-hilobian ahal beste gorpuki edo errautsak ehortzi ahal izango dira ehortz-gunearen neurriaren arabera, hildakoaren legezko oinordeek hala nahi baldin badute, eta emakidaren titularrari jakinarazi beharko zaio, hala badagokio. Aipatutako gorpukiak zerraldoaren ondoan jarriko dira, horma-hilobiaren barruan.

3.- Banakako hezurtegi-tan gorpukiak edo errautsak sartuko dira ezarritako egonaldien barruan, aurreko paragrafoan adierazitako baldintza berberetan.

4.- Gorpukiak hezurtegi-tan eskabidea egin zen egunaren hurrenkerari jarraituz utziko dira eta berdin-berdin jardungo da gorpuak horma-hilobietan sartzeko.

5.- Gorpuak bakar-bakarrik ehortziko dira horma-hilobietan heriotza-egunaren hurrenkeraren arabera.

37. artikulua

1.- Horma-hilobien pabiloien ofiziozko ehorzketetarako iragarki bat argitaratuko da Hilerriaren iragarki-taulan, non azalduko den gorpukiak emakiden iraungipenen hurrenkerari jarraituz desehortziko dela. Aipatutako emakiden titular edo legezko oinordeek gorpukiak gehienez 3 hilabetean erreklamatu ahal izango dituzte, iragarkia argitaratu edo emakida iraungi zen

egunetik zenbatzen hasita,. Kasu honetan, hurrengo 20 urteetan banakako hezurtegi batean ehorzteko eskatu ahal izango dute, ezarri beharreko Zerga Ordenantzan araututako tasa alde zurretik ordainduta.

2.- Honako artikulua honen lehenengo paragrafoan aipatutako hiru hilabeteak behin igarota, interesatuek ez dute gorpukiak erreklamatzeko eskubiderik izango eta Udalak nahi duen moduan erabili ahal izango ditu, erraustuz edo hezurtegi komunean erraustu arte gordez.

38. artikulua

Legezko oinordeko batek edo horren izenean doan pertsona edo erakunde batek beste inork ezin izango du eskatu horma-hilobi edo hezurtegien gaineko jabari publikoaren emakida, ez bada legezko oinordekorik ez dagoela. Horrelakoetan edozein interesatuk eskatu ahal izango du, ezarri beharreko Zerga Ordenantzan azaltzen den tasa alde zurretik ordainduta.

39. artikulua

1.- Udalak horma-hilobien sistema, itxiera, kolore eta gainerako elementuak finkatuko ditu, horma-hilobi horiek era berekoak izan daitezzen, eta alderdi hau derrigor bete beharko dute emakiden eskubideen titularrek. Edonola ere, plaka bat jarri beharko da, eta bertan gutxienez hildakoa identifikatzeko daturen bat eta heriotzaren data azaldu beharko dira.

2.- Hilarria horma-hilobi guztietan jarri beharko da Udalak ezarritako adierazpenei jarraituz. Edonola ere, plakak fatxadaren kanpoko lerroari jarraituz jarri beharko dira, eta ez da ez hutsune, ez aterata dagoen zatirik onartuko.

3.- Horma-hilobien neurriak ezarri beharreko araudian zehaztutakoak izango dira.

40. artikulua

1.- Horma-hilobi batzuk dirurik ez duten pertsonen gorpuak ehorzteko gordeko dira.

2.- Ehortz-gune horiek eman zurretik, derrigorrezkoa izango da Udaleko Gizarte Ekintza Arloak txostena egitea.

3.- Horma-hilobien gaineko hileta-eskubideen emakida doakoa da.

4.- Ehortz-gune horietan hildakoaren izen-abizenak eta hil zeneko eguna azalduko dira.

II. Kapitulu

Panteoiez

41. artikulua

1.- Panteoi baten gaineko emakida edo panteoi bat eraikitzeko partzela baten gainekoa lortu nahi duten herritarrek eskabidea aurkeztu beharko dute Santurtziko Udaletxeko Erregistro Nagusian.

2.- Emakidak Santurtziko Udaletxeko Erregistro Nagusiko sarrera erregistroaren hurrenkerari jarraituz egingo dira.

3.- Ez baldin badago panteoi edo partzelarik eskuragai, aurkezten diren eskabideak itxaron-zerrenda batean sartuko dira, non Santurtzin erroldatutakoek lehentasuna izango duten.

42. artikulua

1.- Jabari publikoa, bai panteoien, bai panteoiak eraikitzeko partzelen gainekoa, zeinen barruan beren neurriei egokitutako ehorts-guneak gaituko diren, gehienez 50 urterako emango dira, baina Udalak, Osoko Bilkuran hala erabakita, epe hori murriztu ahal izango du egoki irizten badio.

2.- Emakidaren epea igaro edo iraungipena adierazi ondoren, jabari publikoa iraungiko da eta Udalak beretzat hartuko du eraikitakoa, titularrak inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango ez duela. Hala eta guztiz ere, aurreko emakidaren titular edo euren legezko oinordeek lehentasunezko eskubidea izango dute, baldin eta gutxienez emakida amaitu baino 3 hilabete lehenago eskatzen badute. Kasu honetan, beste emakida bat eskatzen duten interesatuek Araudi honetan exigitzen diren betebeharrak bete eta dagokien tasa ordaindu beharko dute.

3.- Emakida behin iraungita eta gehienez 3 hilabetean, hilobi-eskubideen titularrek gorpu, gorpuki edo errautsak erreklamatu ahal izango dituzte. Hiru hilabeteko epea behin beteta, gorpuak, gorpukiak edo errautsak ofizioz desehortziko dira eta erraustu edo hezurtegi komunean gordeko dira erraustu arte, interesatuek ez dutelarik erreklamatzeko eskubiderik izango.

4.- Udalari eman beharko zaio egiten diren desehorzketa guztien berri eta horien truke indarreko Zerga Ordenantzan ezarritako tasa ordaindu beharko da.

5.- Debekatuta dago gorpuak edo gorpukiak panteoiatarako diren lurrean ehorztea.

43. artikulua

Panteoi berean bata bestearen atzean egindako ehorzketek ez dute jabari publikoa aldatuko. Bakar-bakarrik aldatuko da baldin eta gorpu bat ehorzten bada emakida amaitzeko falta den epea gorpuak lekuz aldatzeko

legez ezarritakoa baino laburragoa denean. Kasu horretan epea 5 urtez luzatuko da salbuespen gisa, azken ehorzketatik aurrera zenbatuta.

Adierazitako egoeran epea luzatzeko eskubidea, behin bakarrik erabili ahal izango da panteoi bakoitzeko.

44. artikulua

Partzela edo panteoi gaineko emakidaren esleipenak berekin darama ezarri beharreko Zerga Ordenantzan araututako tasaren zenbateko osoa 30 eguneko epean ordaintzeko betebeharra. Epe hori amaituta, horren emakida administratiboa baliogabetu egingo da, ez bada behar bezala arrazoitutako eta Udalak onartutako kausaren bat dagoela.

45. artikulua

Lurzatiaren gaineko jabari publikoaren emakida eskuratzen dutenek hilobia 12 hilabeteen eraiki beharko dute, esleipen-egunetik zenbatuta. Epealdi horretan hilobia eraikitzen ez badute, Udalak eskubidea ondorerik gabe utzi ahal izango du eta interesatuari esleipenean ordaindutako kopuruaren %50 itzuliko dio, baina ez du inolako kalte-ordainik ordainduko egindako obregatik. Aipatutako epealdia 6 hilabetez luzatu ahal izango da interesatuak eraikitzeko emandako epea amaitu aurretik eskatzen badu eta Udalak egoki irizten badio. Interesatuak ez balu luzapen-eskubidea erabiliko, Udalak esleitutako partzela erabili ahal izango du, arestian adierazitako ordainketa eginda.

46. artikulua

1.- Udalak jakinarazpena helaraziko die araudi hau indarrean sartzen denean eraiki ez diren partzelen emakiden titularrei, berau eraiki dezaten aurreko artikuluan ezarritako epean.

2.- Udalak ez baldin badaki emakida-eskubidearen titularra nor den edo non bizi den, udal artxiboetan daturik ez dagoelako edo antzeko arrazoiengatik, Udalak, alde zuzenetik hartutako erabakiz, agindua jendaurrean jarriko du 30 egun naturaleko epean interesatuak Udalean bertaratu daitezen. Aipatutako epe horretan ez bada interesaturik bertaratzen, Udala izango da partzela horren jabe, kalte ordainik ordaintzeko inongo betebeharririk izango ez duela.

3.- Amaitu gabeko panteoietan egindako ehorzketen kasuan, honako artikulua honen lehenengo paragrafoan xedatutako erregimen bera ezarriko da eta gorpuak edo gorpukiak hilabeteko epean desehortziko dira eraikina amaitzeko emandako epea amaitzen den egunetik zenbatuta. Epe horretan ez baldin badira erreklamatzeko, hezurtegi komunean gordeko dira betiko erraustu arte eta ez da horiek erreklamatzeko eskubiderik izango.

47. artikulua

1.- Panteoiak dagokien kale nagusiko sestraren gainean eraikiko dira eta ezin izango dira 3 metrotik gorakoak izan, sarrerako atearen ardatza eta aurreko kaleko sestrarekiko bidegurutzearen garaierako neurria kontuan hartuta. Baina aurreko kale nagusiaren desnibela dela-eta, panteoia altuagoa izan beharko balitz, ezin izango litzateke 3,5 metro baino luzeagoa izan, araudi honen arabera.

Oinplanoko neurria obra-lizentzian zehaztutakoak izango da eta Udalak berriro aztertuko du konponketa edota berrikuntza edota aldaketa lizentziak ematean.

Estalkiak lauak izango dira. Gehienezko altueratik gora ezin izango da ez eraikinik, ez inongo apaingarririk jarri.

Panteoietako horma-hilobiak barruan egongo dira, eta bertan ate nagusitik eta panteoiaren barruko aldetik sartuko da. Horma-hilobi hauek gutxienez banakako horma-hilobietarako ezarritako neurriak izan beharko dituzte. Sistema osoa iragazkorra izango da eta ziurtatuko da drainatzeko sistema egokia eta gasak kalte eragin gabe hedatzeko moduko sistema dituela.

Akaberako kanpoko materialak harrizkoak izango dira, akabera leun edo matedunak. Aluminio edo altzairu herdoilgaitzez egindako ateak jarriko dira sarreran. Lore-apaingarriak jartzeko elementuak ipini ahal izango dira gutxienezko mantendua eskatzen duten neurri, ezaugarri eta materialez eginak, baldin eta ikustean inpakturik sortzen ez badute.

2.- Debekatuta dago beren-beregi horma-hilobi formadun panteoiak eraikitzea, hauek kanpotik zuzenean ikusten direlako, eta beraz, sarrera kale nagusian dutelako.

3.- Udalak panteoien formaren berdintasuna zaintze aldera, eraikin-mota zehaztu ahal izango du kasu bakoitzean, artikulua honen 1. puntuko erduei jarraituz.

48. artikulua

Panteoiak jabari publikoko emakidaren titularraren kargura eta kontura eraikiko dira. Ondorio horietarako, eraikitzeari ekin aurretik udaletxeko Erregistro Nagusian obra-lizentziaren eskabidea eta eraiki nahi duen panteoiaren proiektua aurkeztu beharko ditu. Proiektuak indarreko araudiak eskatutako edukia izango du eta panteoiaren plano eta argazkia paperean eta euskarri informatikoan edukitzeaz gain, partzelaren emakidadunaren titulartasunari buruzko egiaztagiria ere agertu beharko du, bai eta zein taldetakoa den adierazi eta planoan identifikatu ere.

Obra-lizentziaren emakidan aipatutako panteoi edo ehorts-guneetan zenbat ehorketa egin daitekeen adieraziko da, bertan dauden apalen kopuruaren arabera.

49. artikulua

Obra guztietarako, konponketak egitekoak barne, beharrezkoa izango da Udalak aurretik onartu eta lizentzia eman izana.

50. artikulua

1.- Behin obrak amaituta, eraikitzaileek edo, haiek ezean, emakidadunek, lurra, harriak, hondakinak eta, oro har, erabilitako materialen hondakin guztiak bertatik kendu beharko dituzte, ezarri beharreko araudiari jarraituz.

2.- Halaber, ibilgailuekin edo beste edozein elementurekin kale, instalazio, eraikuntza eta gainerakoetan egindako kalteak konpontzeko betebeharra izango dute.

51. artikulua

Panteoien titularrek edo horretarako beren-beregi baimendutako pertsonak apaindurako zaintze-lanak egin ahal izango dituzte beren panteoietan. Baina horrelakoetan egiturazko aldaketa garrantzitsuak egin behar badituzte, obra-lizentzia eskatu beharko dute.

III. Kapitulu

Lur hobiez

52. artikulua

Gorpuak hilerriko lurrian egindako hobietan ehorts ahal izango dira, hain zuzen ere horretarako gorde diren aldeetan.

53. artikulua

1.- Lur hobiak kordelez egingo dira, ilaraka, aplikatzekoa den osasun araudian ezarritako neurriak gordeta.

2.- Hurrenez hurreneko zenbakiak jarriko zaizkie eta hilobiratzeko jabari publikoko emakida zenbakien hurrenkeraren arabera emango da.

3.- Lur-hobi bakoitzean hilobiratze bakarra baino ez da onartzen.

54. artikulua

1.- Lur hobien gaineko jabari publikoaren emakida 10 urteko eperako emango da. Epea amaitutakoan, hurrengo paragrafoan adierazten den epean, hildakoaren legezko jaraunsleek gorpuzkiak banakako hezurtegian beste 20 urtez edukitzeko eskubidea edukiko dute, unean uneko Zerga Ordenantzaren tasak aurretik ordainduz gero.

2.- Lur hobietatik gorpuzkiak ofizioz ateratzeko, Hilerriko iragarki taulan iragarkia jarriko da, zeinetan gorpuzkiak emakiden iraungitze-ordenan aterako direla adieraziko den. Aipatutako emakiden titularrek edo legezko jaraunsleek gehienez 3 hilabeteko epea izango dute, iragarkia jarri edo emakida iraungi denetik, aipatutako gorpuzkiak eskatzeko. Horrelakoetan, gorpuzkiak hezurtegian 20 urtez sartzea eskatu ahal dute, Zerga Ordenantza ezargarrian araututako tasa ordainduz gero.

Artikulu honetako lehen paragrafoan esandako hiru hilabeteak pasatu ondoren, interesdunek ezin izango dituzte gorpuzkiak eskatu, eta Udalak bere esku izango du horien kudeaketa.

IV. Kapitulu

Errauts biltegiez

55. artikulua

Udalerrriaren beharren arabera eraiki ahal izango dira errauts biltegiak, eta eskatzaileei errautsak gordetzeko jabari publikoko emakidak emango zaizkie, eskaera-ordenaren hurrenkeran.

56. artikulua

Eraikitzen diren errauts biltegiek indarrean dagoen araudi ezargarriko osasun arauak eta neurriak bete behar dituzte, eta hurrenez hurreneko zenbakiak jarriko zaizkie.

57. artikulua

1.- Errauts biltegirako jabari publikoko emakida 50 urterako emango da eta Zerga Ordenantzak kasu bakoitzerako zehazten dituen tasak ordainduz lortuko da, Ordenantzak izango dituen aldaketa guztiak izango dituelarik. Emakida lortuz gero, hildako gehiagoren errautsak jarri ahal izango dira.

2.- Emakidaren epea agortu gabe egonik, familiakoek errautsak beste toki batera eramatea erabakiko balute, familiakoek biltegia erabiliko ez duten denborari dagokion diru kopurua galduko dute, Udal Administrazioak galeren ordaina emateko eskubiderik gabe geratuz.

3.- Emakidaren epea agortuta, titularrak edo legezko jaraunsleek lehentasuna izango dute beste emakida bat lortzeko ehorzteko unitate berarentzat dagozkion tasak ordaindu ondoren. Eskaria gutxienez emakida bukatu baino hiru hilabete lehenago aurkeztu behar dute.

4.- Lehenespen-eskubidea izateko epea bukatu ondoren, ehorzketa eskubidea duten titularrek errautsak eskatu ahal izango dituzte emakida bukatzen denetik hiru hilabeteko epera. Hiru hilabeteko epea agortu ondoren, interesdunek ez dute erreklamatzeko eskubiderik izango eta Udalak hartuko du bere gain horien kudeaketa.

58. artikulua

1.- Errauts biltegietako egonaldia emakida lortu den egunean hasiko da.

2.- Errauts biltegietako emakidak eskari-orrien dataren arabera emango dira.

3.- Emakidadunek Udaletxeko Erregistroan aurkeztuko den idazkiaren bidez jakinarazi behar izango dute zeintzuk errauts sartu diren biltegi bakoitzean eta indarrean dagoen Zerga Ordenantzan ezarritako tasa ordaindu beharko dute.

59. artikulua

Udalak errauts biltegietako sistema, ixteko modua, kolorea eta gainontzeko elementuak zehaztuko ditu, haien arteko antzekotasuna gordetzeko.

V. Kapitulu

Errautsak bota eta biltzeko gunea

60. artikulua

1.- Hildakoaren errautsak doan botatzeko gunea egokitu ahal izango da. Gune hau lorategi-espazio mugatua izango da eta bertan hildakoen errautsak doan bota eta zabaldu ahal izango dira.

2.- Eredu-xafla jarri ahal izango da aurretik Udalak erabakitako lekuan hildakoaren izena duena, dagokion tasa ordaindu ondoren.

61. artikulua

1.- Errautsen biltegia lur azpiko panteoi moduko bat izango da, errautsak dituzten kutxak jartzeko. Horretarako Udalari eskatu beharko zaio baimena.

2.- Biltegiak giltzez itxitako estalkia izango du, beraz, hilerriko langileek bertan izan behar dute erabili ahal izateko.

3.- Biltegiaren ondoan xaflak eta inskripzioak jartzeko gunea egokitu ahal izango da. Xaflek eta inskripzioek Udalaren baimena behar dute, dagokien tasa ordaindu ondoren.

4.- Kapitulu honetan aurreikusi ez denerako, horma-hilobi eta hezurtegietan ezarritakoa aplikatuko da.

VI. Kapitulu

Inskripzioak eta hilarriak

62. artikulua

Lur hobietan, horma-hilobietan, panteoietan, hezurtegietan edo errauts biltegietan jarri edo inskribatu beharreko epitafio, oroigarri eta sinboloak legezko jaraunsleek adostuko dituzte, ongintzako ehorzketetan izan ezik, Araudi honek ezartzen duen berdintasuna gordez.

63. artikulua

Horma-hilobietan, hezurtegietan, lur hobietan eta errauts biltegietan inskripzio berdintsuak idatziko dira lauza edo marmol baten gainean. Inskripzioetan, gutxienez, hildakoaren izena eta heriotza-data egongo dira.

IV. IZENBURUA

EHORZKETA UNITATEEN GAINEKO HILOBI-ESKUBIDEEN TITULARTASUNA, ESKUALDAKETA ETA IRAUNGITZEA

I. Kapitulu

Ehorzketa unitateen gaineko hileta-eskubideen titulartasuna

64. artikulua

Lur hobia, horma-hilobia, panteoia, hezurtegia edo errauts biltegia gozatzeko eratu den jabari publikoko emakida ematen denean, ulertuko da giza gorpu, gorpuzkiak, gorpukiak edo errautsak ehorzteko eman dela, beste gordelekurik ezin zaielarik eman, eta Udalak beretzat gordeko du haien jabetza.

65. artikulua

1.- Ehorzketa unitateen gaineko hileta-eskubidearen emakiden titulartasuna honako hauek izan dezakete:

- a) Emakida eskatu duen pertsona fisikoak.
- b) Ezkontideek, ezkontzaren ondasun-eraentzea gorabehera, bai eta legez osatutako izateko bikotekideek ere.
- c) Pertsona fisikoen taldeak, baldin eta arduraduna izendatzen bada eta haien arteko familia-harremana egiaztatzen bada, legeria zibilaren babesaren pean.
- d) Administrazioak onartutako erlijiozko elkarteek, beren kideek erabiltzeko soilik.

2.- Merkataritza-entitateen izenean ezin izango da hileta-eskubidearen emakida erregistratu, bereziki aseguru edo aurreikuspen etxeen izenean edo antzeko besteen izenean, eskusiboki edo beste arrisku batzuen osagarri gisa, kideei hiltzen direnerako hilobi-eskubidea bermatzen dietenean.

66. artikulua

1.- Ehorzketa unitateen gaineko hileta-eskubideak Udalak emango eta aitortuko ditu, Araudi honetan ezarritakoen eta Toki araubidean aplikagarriak diren kontratazio eta ondareari buruzko arau orokorren arabera.

2.- Jabari publikoko emakidak ematea Santurtziko Alkate-Udalburuari dagokio.

67. artikulua

Ehorzketa unitateen gaineko jabari publikoko emakida bermatzeko, dagokion Erregistroan inskribatuko da eta Udalaren Idazkaritzak ehorzketa unitate bakoitzagatik titulu bat emango du, Alkatetzak ontzat emanik.

68. artikulua

Titulua dena delakoagatik narriatzen bada, haren trukean beste bat jaso ahal izango da. Titulua galtzen bada edo inork ostuz gero, titularrari beste bat emango zaio, eskabidea 15 egunetan iragarri ondoren.

69. artikulua

Izenean, deituretan edo beste zerbaitetan antzematen diren akatsak titularrak eskaturik zuzenduko dira, frogatu eta egiaztatu ondoren.

II. Kapitulu

Jabari publikoko emakidaren eskualdaketa

70. artikulua

Jabari publikoko emakidak, dena delakoa eta indarraldiaren iraupena gorabehera, "inter vivos" egintzaren bidez soilik eskualdatu ahal izango dira, beti ere odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko laugarren mailara arteko familiakideak direnean, eta "mortis causa" eskualdatzea titularraren derrigorrezko jaraunsleentzat soilik egin ahal izango da; horiek, ondorengotza zuzenbidearen arauekin bat etorriz zehaztuko dira. Eskualdaketak dagokien tasa ordaindutakoan egin ahal izango dira.

71. artikulua

1.- Jabari publikoko emakiden eskualdaketak baliogabeak izango dira, Araudi honetan baimena ez duten pertsonen kasuan.

2.- Ehorzketa unitateak eta beren osagaiak erabiltzeko eskubidea lagatzea debekatuta dago.

72. artikulua

1.- Jabari publikoko emakidaren titularrak, edozein unetan, hil ondorengo bere legezko jaraunseleen artean emakidaren onuraduna izango dena izendatu ahal izango du. Helburu horrekin Udalera jo eta dagokion akta sinatuko du; akta horretan hilobiaren datuak, onuradunaren izena, deitura eta helbidea eta agiriaren data adieraziko dira. Akta horretan goian aipatu diren legezko jaraunseleen artetik ordezkotzat bat izendatu ahal izango du, izendatutako lehenengo lehenago hiltzen bada.

2.- Onuradunaren izendapena edozein unetan baliogabetu edo aldatu ahal izango du titularrak, bai eta berariaz egindako ondorengo testamentu-xedapenaren bidez ere.

3.- Onuraduna eta haren ordezkotza titularra baino lehenago hiltzen direnean, ez da onuradunik izango.

73. artikulua

Jabari publikoko emakida ezkontide bien izenean hartu denean, bizirik jarraitzen duena izango da lehenengo hil den ezkontidearen emakidaren onuraduna. Bizirik irauten duenak, alde aurretik hilda dagoen ezkontidearekin batera egin ez duenean, biak hil ondorengo onuradun berri bat izendatzeko eskubidea izango du.

74. artikulua

Onuradunik edo testamentu bidezko jaraunslarik ez dagoenenean eta derrigorrezko jaraunslari bi edo gehiago daudenean, emakida eskubidea euren artean jaraunspenezko kuotaren gehiengoagatik izendatuko zaionari geroratuko zaio edo, horren ezean, adin gehiago duen jaraunslari, eta horrek ez badu onartzen, adinean jarraitzen dionari eta horrela, hurrenez hurren.

75. artikulua

1.- Eskubidearen titularra dena hiltzen denean, izendatu den onuradunak, testamentu bidezko jaraunslari edo "ab intestato" dagokionak bere aldeko eskualdaketa egin beharko du. Horretarako eskualdaketa frogatzen duten agiri egokiekin aurkeztu eta bidezko titulua egiaztatu beharko du. Dena den, eta titulartasun berria lortu arte, Udalak behin-behineko eskualdaketa baimentzeko eskubidea izango du, beti ere hirugarrenekoei kalterik eragin gabe. Behin-behineko eskualdaketa hori eskatzailearengandik hurbilen dagoen senidearen alde izango da, Kode Zibilean jasotako jaraunspen-eremuaren barruan. Behin-behineko eskualdaketa horiek Udalaren erregistroetan idatziko dira.

2.- Edonola ere, kontratu-tituluan eta dagozkion inskripzioetan jasota geratuko da eskualdaketa behin-behinekoa dela eta eskubide hobea duten hirugarrenei kalterik egin gabe. Behin-behineko inskripzioa pertsona batek baino gehiagok nahi izanez gero, eta titulu desberdinetatik, ez da behin-behineko eskualdaketarik onartuko. Behin-behineko onarpena baliozkotu behar da eta behin betiko bilakatu da eskualdaketa egiaztatzen duen dokumentu frogatzailearen bidez.

Hala ere, egindako behin-behineko onarpena behin betiko bilakatuko da, baldin eta, hamar urte igaro ondoren, beraren kontra erreklamaziorik jarri ez bada, ez eta baliogabe utzi ez bada, eskualdaketa-egiaztagiri fede-emaiaren bidez hirugarren baten alde.

3.- Behin-behineko titulartasun hori indarrean dagoen aldian eta behin betiko eskualdaketa eskatu ez denean, ez da gorpuzkien lekualdaketarik baimenduko eta delako behin-behineko eskualdaketa horren ondorioz sortuko diren gastuak eskatzailearen pentzutan izango dira.

4.- Behin-behineko titulartasunaldi horretan zuhurtziaz jokatuko da ehorzketa-eragiketen etenduretan, beti ere kasu bakoitzean aurkezten diren inguruabarren arabera. Etendura horrek indarra galduko du behin betiko titulu berria ematen denean. Aipatu den etendura hori gorabehera, beti ere hirugarrenen kalterik gabe, beharrezkoak diren presazko eragiketek baimena izan dezakete; kasu horretan, eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak eskatzailearen pentzutan izango dira.

76. artikulua

Eskualdaketak onartuko dira dagokion jabari publikoko emakidaren epea betetzeko falta den denborarako.

III. Kapitulu

Iraungitzea

77. artikulua

Jabari publikoko emakida iraungi dela adieraziko da ondoko kasuetan, eta ondoren Udalari lehengoratuko zaio; hona hemen kasuok:

a) Ehorzketa unitatea aurri-egoeran egotea.

Ehorzketa unitatea aurri-egoeran dagoela, eta ondorioz eskubidea iraungi dela, adierazteko administrazio-espeditentea beharko da. Espediente horri txosten juridikoa eta teknikoa erantsiko zaizkio eta Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko du.

Espeditentea jendaurrera azalduko da hilabetean zehar erabaki hartu aurretik, eta horretarako Udaletxeko iragarki-taulan, hilerrikoan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

b) Ehorzketa unitateak artatu beharra ez betetzea.

Ehorzketa unitatea gaizki artaturik dagoenean, Udalak ohartaraziko dio titularrari behar diren obrak egin ditzan; obrak ematen den epean egiten ez badituzte artikulua honetako a) atalean ezarritako prozedura jarriki, jabari publikoko emakida iraungi dela adieraziko da.

c) Eskualdaketarako eskubidea ez burutzea. Horrelakotzat hartuko da titularra hil denetik 5 urte igarotzea beraren jaraunsleek edo onuradunek euren aldeko eskualdaketa eskatu gabe.

Baldin eta jaraunsleek edo onuradunek eskualdaketa eskatzen badute eta ehorzketa unitatea egoera txarrean badago, urtebete igaro baino lehen txukundu beharko da; epealdia igarota behar diren konponketak egin ez badira, jabari publikoko emakida iraungi dela adieraziko da eta Udalak hartuko du.

d) Emakida epeak igarotzea

e) Interesdunari mugaeguneraturiko kuota bat ordaintzea eskatu eta ez ordaintzea.

f) Titularrak beren beregi uko egitea.

Titularrek uko egin ahal diete panteoien gaineko hileta-eskubideei emakidaren epea bukatu aurretik, inolako kalte-ordainik jaso gabe.

- g) Emakida araudi honetan xedatutakoaren kontra erabiltzea.
- i) Emakida erreskatatzea, herriaren interesagatik denean eta kalte-ordaina ordaindu ondoren, hala badagokio.
- f) Jabari publikoko emakida iraungitzea.
- k) Panteoiak eraikitzeko ezarrita dauden epeak ez burutzea.

V. IZENBURUA

EHORZKETAK, DESEHORZKETAK ETA LEKUALDAKETAK

78. artikulua

Gorpuen, gorpukien edo errautsen ehorzketak, desehorzketak eta lekualdaketak indarrean dauden arauen araberakoak izango dira.

I. Kapituluak

Ehorzketak eta desehorzketak

1. atala Ehorzketak

79. artikulua

1.- Ondokoek izango dute hilerriko lur hobi eta horma-hobietan ehorzteko eskubidea:

- a) Gaur egun Santurtziko udalerrian erroldatuta daudenek.
- b) 10 urte baino gehiago bertan erroldatuta egon direnek.
- c) Udalerrietik kanpo bizi arren bertan jaio direnek.
- d) Erroldatuta egon ez arren Santurtzin hil direnek.
- e) Santurtziko biztanleen edo udalerrian erroldatutakoen arbaso eta ondorengo zuzen eta zeharrekoek
- f) Baldintza hauek betetzen ez dituzten gorpuen ehorzketak Udalak onartu ahal izango ditu, salbuespenezko inguruabar eta beharrak aintzat hartuta, esanbidezko ebazpenaren bidez.

2.- d, e eta f atalekoei dagokienez, gorpuak horma-hobietan soilik ehortzi ahal izango dira, debekaturik dago lur hobiak erabiltzea, eta norbanakoen panteoietan ehortzeko baimena ematea egongo da edozein kasutan.

3.- Gainontzeko ehorzketa unitateetan ez dira baldintza hauek eskatuko.

80. artikulua

1.- Oro har, III Taldeko gorpuari hil denetik hogeita lau eta berrogeita zortzi ordu bitartean emango zaio azken gordelekua.

Autopsia egin den kasuetan edo transplanterako organoak, ehunak edo anatomia-atalik hartu direnetan, hil denetik hogeita lau ordu igaro baino lehen eman ahal izango zaio azken gordelekua. Gorpuei hogeita lau orduak igaro baino lehen eman ahal izango zaie azken gordelekua, baldin eta usteltzen hasi direlako seinaleak nabariak badira edo usteldura gerta daitekeela aurreikusten bada, eta heriotza-ziurtagirian gorabehera hau adierazten bada.

2.- III Taldeko aldi baterako kontserbatutako gorpuei azken gordelekua emango zaie hil eta hirurogeita hamabi ordu igaro aurretik.

3.- III Taldeko baltsamatutako gorpuei azken gordelekua emango zaie hil eta laurogeita sei ordu igaro aurretik.

4.- III Taldeko izoztutako gorpuak salbuetsita daude aurreko epeak betetzeaz.

5.- III Taldeko gorpuek, jatorria eta gordelekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutenek eta esku-hartze judizialik ez dutenek, ehorzketa epea 72 orduz luzatu ahal izango dute aldi baterako kontserbaziorik gabe, baimendun tokian dagoen hoztutako eremuan egon badira.

6.- Gorpuen garraioa zuzen egingo da, geldialdirik gabe, helmugaraino.

81. artikulua

1.- Gorpu, gorpuzki eta gorpuki guztiak, I Taldekoak izan ezik, Hilerrian ehortzi ahal izango dira.

2.- Gorpu guztiak erraustu ahal izango dira horretarako baimena duten instalazioetan, II Taldeko gorpuak izan ezik.

82. artikulua

Ehorzketarako baimenak Alkatetzak emango ditu, ondoko agiri hauek aurkeztuz gero:

1. Lurperatze-lizentzia.

2. Aldi baterako kontserbazio- edo baltsamatze-aktak, hala badagokio.
3. Heriotza-ziurtagiria, Udal Hilerrian aurkeztuko dena, edo eskumena duen Epailearen Baimena, heriotza kausa naturalez gertatu ez bada.
4. Behar denean eta gorpuak Autonomia Erkidegotik kanpo datozen guztietan, osasun baimena.
5. Ehorzketa unitatearen gaineko hileta-eskubiderako emakidaren titulua, hala badagokio.

83. artikulua

1.- Aurkeztutako agiriak aztertuta, behin-behineko lurperaketa-orria emango du Hilerriko arduradunak, agiriak ongi daudela eta, ehorzketa zein lekutan egingo den zehaztuta, ehorzketari ekin ahal zaiola frogatzeko, gorpua aurretik gorputegian edukita zein ez.

2.- Hilerriko koordinatzaile-arduradunak behin-behineko orria emango dio emakidaren eskatzaileari eta originala, ahal dela egunean bertan, eskumena duen administrazio atalari helaraziko dio behar bezala sinatuta, behar diren baldintza guztiak bete direlako frogagiri bezala.

84. artikulua

Aurreko artikuluan aipatu den orrian ondokoak agertaraziko dira:

- a) Hildakoaren izen-abizenak.
- b) Heriotza data.
- b) Lurperatzeko edo lagatzeko leku zehatza eta leku hori horma-hilobi, hezurtegia, panteoia, hobia, errauts biltegia edo errautsak bota edo biltzeko tokia den.

85. artikulua

Ehorzketak, eta hala badagokio berriro sartzeak, lur hobietan, horma-hilobietan, panteoietan edo hezurtegieetan egingo dira, eta horietan guztietan Hilerriko Osasun Araudian edo ezarri beharreko bestelako araudian adierazitako baldintzak bete beharko dira.

86. artikulua

Ehorzketak, berriro sartzeak eta lagatzeak beti egingo dira hilerriko koordinatzaile-arduraduna edo hark eskuordetzen duena aurrean dagoela.

87. artikulua

1.- Lur-hobi zenbakidunean gorpu bakarra ehortziko da, bere hilkutxaren barruan dagoela; gero lurraz estaliko da, txukun-txukun.

2.- Horma-hilobietan gorpu bakarra ehortziko da, bere hilkutxaren barruan dagoela, Araudiaren 36.2. artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.

Gorpua ehortzitakoan, horma-hilobiari trenkada egingo zaio berehala, eta horma-hilobiak ezin izango dira jantzi zementu hidraulikoz ez bestelako gai iragazgaitzez.

88. artikulua

Eraikuntza egiteko igeltsaritzako-lanak Udalari dagozkio eta senideen kontura izango dira, baina hilarria, hura jartzea eta inskripzioa senideen kontura izango dira.

2. atala.- Desehorzketak.

89. artikulua

1.- Desehorzketa edo lekualdaketa egitea eskatzen den kasuetan, ondoko datu hauek erantsi beharko dira eskarian:

a) **Gorpuaz edo gorpuzkiez arduratuko denaren izen-abizenak. Honek hildakoaren legezko jaraunslea dela egiaztatu beharko du.**

b) Gorpua edo gorpuzkiak desehortziko diren hildakoaren izen-abizenak.

c) Ehorzketa unitatearen kokapena.

e) Gorpuaren edo gorpukiaren azken gordelekua.

2.- Esandako eskaerari indarrean dagoen araudiko kasu bakoitzerako eskatzen diren agiriak erantsi beharko zaizkio.

90. artikulua

1.- Desehorzketa guztiak kasu bakoitzari dagozkion arau higieniko eta sanitarioei jarraiki egingo dira, lan-osasun eta lan arriskuen prebentziorako araudia betez.

2.- Desehorzketak egin behar dituzten langileek eskularru gogorrak, maskara, botak eta garbitu ahal den babeserako arropa espezifikoa erabili behar izango dituzte.

A) Gorpuen desehorzketak

91. artikulua

1.- I eta II Taldeetako gorpuak desehorztea debekatuta dago.

2.- Gorpuak desehorzteko Udalak bere adostasuna adierazi beharko du eta Osasun Agintaritzaren baimena beharko da.

3.- Oro har, III Taldeko gorpurik ezin izango da desehortzi, ehorzketatik 5 urte igaro baino lehen.

Osasun Sailak gorpuak desehorzteko baimena eman dezake hurrengo kasu hauetan:

- a) Epaileak berariazko agindua ematen badu.
- b) Baltsamatutako gorpuak badira. Kasu honetan hartu beharreko neurri higieniko-sanitarioak zehaztuko dira.
- c) Instalazioak hondatzen badira edo hondamendi naturala gertatzen bada.
- d) Hilkutxa Hilerrian berehala berriro ehorzteko edo errausteko aurreikusten diren baldintzetan dagoenean.

4.- Edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun-alderdiei buruzko araudia onartzen duen Dekretua eta indarrean dauden gainontzeko araudiak aplikatuko dira.

92. artikulua

Desehortzitako gorpuen gordelekuak honakoak izan daitezke:

- a) Hilerrian bertan berriro ehorztea beste hobi batean. Arauaren arabera esku hartu behar duten osasun langileek komeni dela uste badute, hilkutxa berriaren ehortziko da.
- b) Beste hilerri batera eramatea, Probintziako Osasun Agintaritzak edo eskumena duen beste organo batek egiaztatu ondoren. Baimena osasunaren arloko agintaritza eskudunak emango du. Berriro ehorzteko epea ez da 48 orduetik gorakoa izango.
- c) Hilerriko beste ehorzketa unitate batean, horretarako titularra ados egon beharko da eta a) puntukoa bete beharko da.
- d) Berehala erraustea, indarrean dauden xedapenen arabera.

93. artikulua

Gorpuen desehorzketak ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean bertan behera utziko dira, agintari judizialak agindutakoak izan ezik. Igande eta jai egunetan ere gauza bera gertatuko da.

94. artikulua

Desehorzten diren 5 urte baino gehiagoko gorpuak, zeinetan materia organikoa erabat suntsitu ez den, eta beste hilerri batera lekualdatuko direnak hil oihal biodegradagarri, iragazgaitz eta erregaian bilduko dira. Lekualdaketa hileta-enpresa erregistratuak egingo du, hilkutxa arrunta erabili ahal duelarik. Ehortzitako gorpuak lekualdatzeko hilkutxa berezian egingo den kasuetan, kanpoko kutxa aldatuko da lekualdaketarako.

95. artikulua

Indarrean dagoen araudiari jarraiki behar den baimen judizialari kalterik egin gabe, gorpuak manipulatzeko era guztiek behar dute osasun baimena edo esku-hartzea. Beraz, aldi baterako kontserbatzeko, baltsamatzeko, errausteko eskari guztiei edo gorpuei egin beharreko bestelako operazioei eskumena duen Osasun Agintaritzak eman behar die baimena.

B) Gorpu-hondakinen desehorzketak.

96. artikulua

1.- I Taldeko gorpuak desehorztea debekatuta dago.

2.- II Taldeko gorpukien desehorzketak erradiologia-babeseko gaietan eskumena duen agintaritzaren aginduen arabera izango dira.

97. artikulua

1.- Hilerrian bertan berriro ehortziko diren III Taldeko gorpukien desehorzketek ez dute baimen sanitarioa behar, garraioa gorpuzkinen poltsan egin ahal delarik.

2.- Beste Hilerri batean berriro ehortziko diren III Taldeko gorpukien desehorzketek baimen sanitarioa behar dute, eta garraioa gorpuzkinen kutxan egingo da.

98. artikulua

II Taldeko gorpukien desehorzketak erradiologia-babeseko gaietan eskumena duen agintaritzaren aginduen arabera izango dira.

Hilerrian bertan berriro ehortziko diren III Taldeko gorpukien desehorzketek ez dute baimen sanitarioa behar, garraioa gorpuzkinen poltsan egin ahal delarik. Beste Hilerri batean berriro ehortziko badira, baimen sanitarioa behar izango da.

II. Kapituluak

Garraioak eta lekualdaketak

99. artikulua

Gorpuak lekualdatzen eta garraiatzen direnean, indarrean dauden arau zehatzak beteko dira.

100. artikulua

1.- I eta II Taldeetako ehortzi gabeko gorpuak edo gorpuzkinen garraioak osasun agintaritzaren aurretiko baimena beharko du.

2.- III Taldeko ehortzi gabeko gorpuak eta gorpuzkiak beste Erkidego batzuetara garraiatzeko, aurretik osasun agintaritzari jakinarazi behar zaio. Garraioa Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan izanez gero, ez da Osasun Sailera jakinarazi behar, ez eta bere baimena ere.

101. artikulua

1.- Gorpuen garraioa, ehorzketa eta errausketa dagokien hilkutxarekin egingo dira, hondamendi, epidemiologi-irregularitasun larri edo osasun administrazioak beren beregi egindako erabakiaren bidez baimena ematen duen kasuetan izan ezik.

2.- Hilkutxa bakoitzak gorpu bakarra izango du, aldi berean hildako ama eta abortukinen kasuan izan ezik.

3.- Hilkutxak berrerabiltzea debekatuta dago, jasotzeko hilkutxa izan ezik dagozkion baldintza higieniko-sanitarioak hartu ondoren.

4.- Edozein kasutan, gorpuak dituzten hilkutxa guztiak garraiorako itxi egingo dira dauden lekutik atera aurretik.

102. artikulua

Hildakoa behartsua denean, Administrazioak emango du hilkutxa.

103. artikulua

Gorpu eta gorpuzkinen garraioa eta lekualdaketa baimendun hileta-entresak burutuko ditu soilik, hileta-auto, bagoi, itsasontzi edo hegazkinaren bidez edo Osasun Sailak kasu bakoitzerako baimendu ahal dituen bestelakoen bidez.

104. artikulua

Ehorzte-ontziak honakoak izan daitezke:

- a) Hilkutxa arrunta.
- b) Garraiorako hilkutxa berezia.

- c) Jasotzeko hilkutxa.
- d) Gorpuzkinen kutxa.
- e) Gorpuzkinen poltsa.
- f) Errauts-kutxatila.

105. artikulua

1.- Gorpuk hiltokian edo baimendun beilatokian egongo dira ehorzketa edo errausketa burutu arte.

2.- Baltsamatutako gorpuk zein aldi baterako kontserbatutakoak ezin izango dira eraman beraien etxeetatik beste batera, baizik eta hilerrira zuzen, udalerrri honetakora zein besteren batekora.

106. artikulua

Udalak baimena eman dezake gorpuk toki publikoetan erakusteko, eguraldiak laguntzen badu. Erakustaldi hori, heriotza gertatu zenetik 48 ordukoa izango da gehienez. Obra eta Zerbitzuetako Arloko Zinegotzi Eskuordeari baimena eskatzean, tokiaren eta orduaren berri emango zaio eta hark ebazpena emango du, osasun arlokoek baimena eman ondoren.

107. artikulua

Aurreko bi artikulua III Taldeko gorpuei soilik aplikatuko zaizkie.

VI. IZENBURUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

108. artikulua

Araudi honek arautzen dituen gaiak dagokienez, arau-hauste administratibo izango dira bertako arauetan jasotako kontrako diren ekintza edo ez-egite oro, baita Araudian arautzen diren gaien inguruko neurri zuzentzaileak har daitezela galdatzen delarik edo administrazio-aginduak ematen direlarik horiek ez betetzea ere.

109. artikulua

Testu honetan jasotako arauak ez betetzearen ondorio diren erantzukizunei aurre egin behar dieten pertsonen zigorak ezarri ahal izango zaizkie, lege ezarritako prozedurari jarraiki.

110. artikulua

1.- Gai honetako zigorak ezartzeko eskumena indarrean dagoen toki araubidearen arabera zehaztuko da.

2.- Zehapen-prozedurak instrukzio-aldia eta erabakia hartzeko aldia egoki banatu beharko ditu, ardurak organo desberdinei emanaz.

111. artikulua

1.- Araudi honetako arauak ez betetzea ekarriko duten jarduerak edo ez-egiteek administrazio izaerako erantzukizuna sortuko dute, eta horrek ez die kalterik egingo gerta litezkeen bestelako erantzukizunei.

2.- Arau-hausteen erantzuleak egileak edota jabari publikoko emakiden titularrak izango dira.

I. Kapituluak

Arau-haustek

112. artikulua

Araudi honen arabera, arau-haustek ondoko artikuluetan agertzen direnak izango dira eta arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira.

113. artikulua

Arau-hauste arinak honakoak dira:

- a) Ondoko edo inguruko ehorzketa unitateetan kalteak eragitea, lanak burutzeagatik.
- b) Ehorzketa unitateetan lanak burutzean, lizentzietan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- c) Ehorzketa unitateak Araudi honetan eskatzen diren artapen, garbitasun eta apaindura baldintzetan ez izatea.
- d) Hilerriko langileek emandako aginduak ez betetzea.
- e) Hilerriko lasaitasuna asaldatzea edo tokiari dagozkion errespetu-arauak haustea.
- f) Araudi honetako xedapenak ez betetzea ekarriko duen edozein jarduera, arau-hauste larri edo oso larritzat hartu gabekoa.

114. artikulua

Arau-hauste larriak honakoak dira:

- a) Hilerrian burutzen diren ekitaldietan nahasmendu larriak sortzea, jokaera errespetugabe edo apalgarrien bidez.
- b) Jabari publikoko emakidaren eskualdaketarako ezarri diren baldintzak ez betetzea.
- c) Ehorzketa unitateetan lanak burutzea udalaren lizentziarik gabe.
- d) Hilerriko instalazioetan lan-hondakinak uztea.

- e) Hilerrira ezarritako ordutegitik kanpo sartzea aurretiko baimenik gabe.
- f) Debekatutako objektuak sartu, lapurtu edo jartzea.
- g) Araudi honek debeketzen dituen animaliak edo ibilgailuak sartzea.
- h) Kalean saltzea eta Hilerraren barruan propaganda egitea.
- i) Azken urtean arau-hauste arin bi edo gehiago egin izana.
- j) Gorpuak lurtean ehorztea, panteoien eremuan.

115. artikulua

Arau-hauste oso larriak honakoak dira:

- a) Intimitaterako eta Hilerriko erabiltzaileen irudiaren kontrako jarduerak burutzea, aurretiko baimenik gabe.
- b) Ez betetzea osasun arauak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun-alderdiei buruzko araudian eskatzen diren neurriak ehorzketa unitateak eraikitzean.
- c) Ehorzketak edo desehorzketak behar diren izapideak bete gabe egitea.
- d) Ehorzketa unitateen eta beren osagaien erabilera-eskubidea lagatzea.
- e) Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea azken urtean, zigorra ezarrita.

II. Kapituluak

Zigorrak

116. artikulua

1.- Sortutako arrisku edo kaltea, lortutako etekina eta zenbateraino nahita egin diren kontuan hartuta mailakatuko dira Ordenantza honetan jasotako arau-hausteengatik zigorrak.

2.- Erantzukizun administratiboari dagokionez, zirkunstantzia aringarritzat joko da inguruetan sortutako ondorio kaltegarriak murriztu edo deuseztatzeko neurri zuzentzaileak hartu izana zehapen-espeditentea abiarazi aurretik.

117. artikulua

1.- Arau-hausteak honela zigortuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriak: 1.501 eurotik 3.000 euro bitartera.
- c) Arau-hauste larriak: 751 eurotik 1.500 euro bitartera.
- d) Arau-hauste arinak: 750 euro bitartera.

2.- Udalak ezarritako kasuetan, jabari publikoko emakida berreskuratzea adostu ahal izango da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan agertzen ez diren alderdietarako urriaren 19ko 202/2004 Dekretuan xedatutakoa beteko da, zeinetan Euskal Autonomia Erkidegoko Hilotzen Osasun-alderdiei buruzko Araudia, 1974ko uztailaren 20ko Hilerrietako Osasun eta Txukuntasunari buruzko Araudia eta indarrean dauden gainontzeko arauak onartu ziren.

1. XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudian xedatutako jabari publikoko emakiden iraupen-epreak Araudia indarrean jarri ondoren egin diren eskaerei ezarriko zaizkie.

2. XEDAPEN IRAGANKORRA

Araudi hau indarrean jarri baino lehen, betiko emandako emakidak, gehienez ere, Toki Administrazioaren emakida eta kontratuatarako indarrean dagoen eperik luzeenerako eman direla ulertuko da. Esleitu direnean jabari publikoko emakiden gehienezko epea arautzen duen araurik egon ez balitz, emakida 99 urterako eman dela ulertuko da.

Betiko emakidak iraungitza joko dira jabari publikoko emakida edo haren eskualdaketa frogatzen duen titulurik eduki ezean, salbu eta hura aurkezten bada araudi hau indarrean jarri eta urtebete igaro baino lehen.

Titulartasuna edo eskualdaketa frogatu ezean, burutzen ari den erabilera frogatu beharko da eta jabari publikoko emakida jasotzea eskatu; eskubidea Araudian ezarri bezala emango da.

3. XEDAPEN IRAGANKORRA

Panteoiei dagokien lurretan egindako ehorzketek 10 urteko baimena izango dute, Araudi hau indarrean jarri aurretik egin direnean. Epe hori igarotakoan, gorpukiak edo gorpuak desehortzi beharko dira eta panteoia eraikitzeko epea kontatzen hasiko da, Araudi honetako 46. artikulua ezartzen duenari jarraiki.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

San Jorge Udal Hilerriko Barne Araubideari buruzko Araudia, 1997ko urriaren 31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa, indargabetu egin da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 egun igarota jarriko da indarrean, behin betiko onetsi ondoren.

Udalak beretzat gorde du Araudia aldarazteko ahalmena; ez erabiltzaileek ez jabari publikoko emakiden titularrek ez dute edukiko inolako eskubiderik ez kalte-ordainik eskatzeko, ez erreklamaziorik egiteko.

Udalak ahalmena dauka Araudia aplikatu eta interpretatzean sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko.